

ASTEAZKENEAN EGINDAKO IRAGARPENA. 2023ko ABUZTUAREN 09a. 08:30.

ASTEAZKENA (2023/08/09)

Egunaren bigarren zatia hauts-gandua ager daiteke. Zerua hodei gutxirekin edo oskarbi egongo da. Arratsalde-gauean bero-hodeiak garatuko dira eta baliteke zaparrada txiki-ertainak eta trumoiak botatzea; zenbait lekutan handiak izan litezke eta txingorra egin lezake. Hego-ekialdeko haize ahul-bizia ibiliko da, bolada gogor batzuekin haizeguneean. Eguerditik aurrera haizeak eki/ipar-ekialdera egingo du Kantauri isurialdean, kostaldetik hasita, eta ahul-bizi ibiliko da. Gauean haizeak mendebal/ipar-mendebaldera egingo du kostaldean, bolada gogorrekin eta oso gogor batzuekin. Arratsalde-gauean ekaitz-guneetan haizea bolada gogorrekin edo oso gogorrekin ibil daiteke. Temperatura maximoak asko igoko dira.

Temperaturak (°C)	
	<i>Maximoa</i>
Donostia	36
Bilbao	39
Gasteiz	40
Arrasate	41

OSTEGUNA (2023/08/10)

Zerua hodei gutxirekin edo partez hodeitua egongo da goi-hodeien tarte batzuekin, eta behe-hodeien tarteekin, bereziki Kantauri isurialdean eta egunaren lehen partean. Goizaldean mendebal/ipar-mendebaldeko haize ahul-bizia ibiliko da, bolada gogorrekin eta oso gogor batzuekin kostaldean. Gainontzeko orduetan ipar-osagaiko haize ahul-bizia ibiliko da, bolada gogorrekin Araban arratsaldetik aurrera. Temperatura minimoak gutxi edo nahikoa igoko dira eta maximoak asko jaitsiko dira.

Temperaturak (°C)		
	<i>Minimoa</i>	<i>Maximoa</i>
Donostia	18	26
Bilbao	20	27
Gasteiz	15	30
Arrasate	17	29

OSTIRALA (2023/08/11)

Goiz-lanbroa. Zerua hodei gutxirekin egongo da, Kantauri isurialdean behe-hodeien tarteekin goizaldean, goizean goiz eta azken orduetan. Norabide aldatzeko haize ahula ibiliko da; arratsaldean ipar-osagaitik finkatuko da eta ahul-bizi ibiliko da. Temperatura minimoak gutxi edo nahikoa jaitsiko dira, eta maximoetan aldaketarik ez edo gutxi igoko dira.

LARUNBATA (2023/08/12)

Goiz-lanbroa. Egunaren lehen zatian zerua tarteka hodeitsu egongo da, bereziki Kantauri isurialdean. Arratsaldean hodeiak ugarituko dira eta arratsalde-gauean zerua hodeitsu edo oso hodeitsu geratuko da. Kantauri isurialdean euri txikia egin dezake gauean, bereziki mendebaldean. Ipar-osagaiko haize ahul-bizia ibiliko da, bolada gogorrekin arratsaldean Arabako zenbait lekutan. Temperatura minimoetan aldaketarik ez edo gutxi igoko dira, eta maximoak gutxi edo nahikoa jaitsiko dira.